



Hiztegitxo


Hobeto irakurtzen laguntzeko




adabatu konpondu	...Francis zuloren bat pasaratzen edo urraduraren bat adabatzen ari zen bitartean...	178
afera zeregina, asuntua	...dirutza irabaziko zuen modaren industrian baldin eta ikusezina izatearen afera konpontzea lortzen bazuen.	71
alajaina! arraioa!, arranopola!	—Galesko printzearen oihalez egina, alajaina! —agertu zitzaion.	89
aldapatsu maldatsua, malkartsua	Berriki, lubeta aldapatsu batetik bagoiak altxatzen ibili zen Boyle jauna...	118
alderrai ibiltari, noragabe	Urtebete alderrai ibili ondoren, denentzat ikusezin, bat-batean jarleku batean eseri eta...	10
amultsu maitakorra, ezta	Gogoratzen zuen zeinen amultsuak izan ziren denak amak kolapsoa izan eta sukaldean garuneko tumore baten ondorioz zendu zenean.	108
andana piloa, mordoia	Azpian, josteko makina bat zegoen lan-mahai batean, eta mahaipen berriz, oihal-biribilki andana marrazki eta koloreen kaleidoskopio batean pilatuta.	19
anker krudela, gupidagabea	...bere ikastetxeko bi neska berari buruzko istorio ankerrak asmatzen ibili zirelako.	168
antzarak ferratzera pikutara	...ezin zuen burutik kendu zergatik ez ote zuen Dermot antzarak ferratzera bidali...	145
arraildura arrakala, zartadura	...edo lurreko arraildurak zapaltzen saihestera eramaten dituen obsesioarekin alderatu zitekeen.	147
artean orduan, oraino	Eta artean ez bazekien ere, ez zen bakarra.	36
atondo ataria, ezkaratza, harrera gela	Etxeko atondoa estu-estua zen...	16
baratxuri berakatza	...saltsen platerak, baratxuri ogia, pizza zatiak, oilasko frijitua, enpanadak, gazta eta urdaiazpiko xerrak.	98
bezatu otzandu, baretu	...aldamenean adiskide bat izateak xaxatzen zutenean ezker eskuin jotzeko zuen grina bezatzen lagunduko zion.	65
bidezidor bidexka	Francisek atetzar bat bultzatu, eta bidezidor batean barrena eraman zuen Jessica adreilu gorrizko etxe viktoriar garai bateko sarreraraino.	16
biharamun aipatzen denaren hurrengo egun	Berria albistegian agertu eta biharamunean hasi ziren iristen, eta hilabete pasatu ondoren, gutunak jasotzen jarraitzen zuen.	171
buru-belarri gogotsu, jo eta ke	...mutikoak institutura joateko limurtzeaz gain, buru-belarri aritzeko ere konbentzitu zuen.	89
deiadarka oihuka	Burua jaso, eta ezusteko indarrak deiadarka hasi zen.	92
dilindan zintzilikatuta, eskegita	...boxeoko zaku erraldoi bat sabaiko gako batetik dilindan .	53
entzungor gorrarena egin, ez entzunarena	Amak dio entzungor egiten badiot, azkenean aspertu egingo dela.	33
erpu hatz lodia	Jessicak eskuak luzatu, eta mutikoaren sorbaldean jarri zituen berriz, erpu ekin lepoa igurtziz.	28
eskarmentu esperientzia	Andi eskarmentu handiko patinatzailea zen...	57
ganbara goitegia, trastelekua	Aste bakarrean, ehun gutun baino gehiago pilatu zitzaizkion ganbarako mahai gainean...	171



garun burmuina	Baina garuna estutuagatik ere, ez zuten erantzunik lortu.	85
gorpu hilotza	Eta, modu berean, bazekien aldameneko ohean maindire zuriaren azpian zetzan gorpua berea zela...	21
gutxiespen erdeinua, mespretxua	Neskak gutxiespenezko begirada bat bota zion.	46
hartxintzar harri txikitxoan multzoa, legarra	...bizikleta etxe erraldoiaren pareko hartxintzarrean utzi, eta ate nagusiko txirrina jo zuen.	91
hasperen zizpurua, arnasbeherapen sakona	Eta hasperen luze bat egin zuen.	168
hegaldatu hegan egin	...mamua gorantz hegaldatu , eta sabaia inolako trabarik gabe zeharkatu baitzuen.	53
higatu gastatua, maiztua	Eskuinetara, jostunen maniki bat larruzko sofa higatu baten ondoan zutik.	19
hitz eta pitz berriketan, hizketan, solasean	Horren orde, hitz eta pitz jarraitu zuen, bereziki modari eta gustuko zituen eta ez zituen estiloei buruz...	28
huskeria ezerezkeria, txikikeria	Eta biharamunean ere gauza bera gertatzen bazitzaion, hori ere huskeria izango zen.	145
ikusmiran kuxkuxean	...eta mundu guztiak jakingo du neskontzako denda batean ibili naizela ikusmiran .	34
irmo tinkoa, sendoa	Nire lagunak dioenez, berak erabaki irmoa hartzen badu...	105
irmotasun sendotasuna	...baina Lornak irmotasunez egin zion uko.	169
irudipen lilura, ilusioa, begitazioa	— A! Ziurtatu nahi zenuen ez dela irudipen hutsa izan, ezta?	10
iseka burla, trufa	...denek begiratzen dizute, begirik kendu gabe gainera, barrezka, iseka , ustez ez duzula esaten dutena entzuten...	110
itsumustuan ustekabea	Sentitzen dut itsumustuan bota badut dena.	106
izu-laborria ikara edo beldur handia (pánico)	Aurpegia zurbil-zurbila zeukan, eta masailak gorri. Izu-laborriak hartuta zirudien.	35
jazarpen esetsaldia, pertsekuzioa	...eta eskola jazarpen kasu argia zela zioen.	168
jazarri zirikatu, oldartu, eraso	...Francisek zapalduen eta jazarrien begirada goibel hura...	88
jipoitu astindu, zurratu, egurtu	Ez du nahiko gainerakoek jakin dezaten neska batek jipoitu duela.	72
joskintza jostunaren ofizioa	...Dummer's merkataritza-guneko joskintza -sailetik pasatu nahi zuen.	33
kakorraz puntua egiteko teknika	Ugg botak eta trikotatutako txanoa zeramatzan minigona eta kakorrazeko blusaren orde.	13
kalamastra zaharkitua	Haren estudioa beirazko egitura kalamastra zen.	37
kikara katilutxoa	— Barkatu —Francisek eskainitako kikara kendu zuen.	8



kinka larrian egoera larrian, estatusunean	Atera deitzea bururatu zitzaion, Jessica kinka larrian baldin bazegoen lagundu ahal izateko.	81
kokotsa bidarra	Roland kopetilun eseri zen banku batean, kokotsa eskuetan finkatuta.	138
kopetilun triste, goibel	—Beno, ez da nik uste nuena —mamua kopetilun jarri zen—.	14
korridore pasilloa	Quentin Howard ikusi zuen lehen aldian Jessica institutuko korridorean zegoen Francisekin...	31
larrutu kritikatu, maiseatu	...nolakoa den ikusteko aukera izango duzu eta horrela, alde egiten duenean, larrutu egin dezakegu.	43
lepo egon gainezka egon, bete-bete egon	Nekez lortzen da ikaslez lepo dagoen ikastetxe batean soseguz eta patxadaz egoteko tarterik.	7
limurtu konbentzitu, seduzitu	...mutikoak institutura joateko limurtzeaz gain, buru-belarri aritzeko ere konbentzitu zuen.	89
liskar istilua, gatazka	Beti liskarrean ibiltzen baitzen txikitan.	44
mardul sendoa, indartsua	...hanka sendokote indartsuak zituen eta bi beso gihartsu eta mardul alboetara tinko ezarriak.	44
mintzakide hizketakidea, solaskidea	...esan dizudan bezala, bakar-bakarrik egon naiz orain arte eta pozgarria da mintzakide bat izatea.	11
nagiak atera tiragaleak atera, sagaitu	...josteko makinaren gainean guztiz konkortuta josi eta josi ziharduen bitartean, harik eta nagiak ateratzeko etenalditxo bat egin zuen arte.	28
orga gurditxo	...gurinezko pastelak eta txokolatzeko tarta erraldoia zituen orgatxo bati bultzaka.	100
otoitz orazioa, errezoa	Hantxe zeukan bere otoitzen erantzuna.	39
oturuntza otordua	Jessicak berak aitortu zien horrelako oturuntza bat nahikoa zela mamau batek hezur-haragizko gorputza izatea desiratzeko.	98
patrika poltsikoa, sakela	—Andik sakelakoa atera zuen patrikatik .	55
piper egin sasieskola egin, eskolara faltatu	Eraikin nagusirantz zihoala, burutik pasatu zitzaion piper egin eta irakasle-gelara joatea...	11
purrustaka marmarka, protestaka	...eta handik purrustaka hasi zitzaion amari.	40
salto egin jauzi egin	Neskak salto egin zion gainera.	178
sarraila zerrapoa	...Andi ikusi zuen giltza sarrailatik ateratzen.	62
sen zentzutasuna, intuizioa	Sen onak bazkalorduko gertaerak ameskeria hutsa behar zuela esaten zion behin eta berriro...	13
sosegu lasaitasuna, baretasuna	Nekez lortzen da ikaslez lepo dagoen ikastetxe batean soseguz eta patxadaz egoteko tarterik.	7
suhartasun berotasuna, kartsutasuna	Andiren begietan interesa eta suhartasuna piztu ziren.	47
suminkor haserrekorra, odolberoa	—Traka, izatez, ez da suminkorra —zioen Campion andreak—. Kontua da oso kartsua dela.	48



tamalez zoritxarrez, damurik	—Bai, tamalez —erantzun zion—, baina ez dut uste kezkatzeko motiborik duzunik.	59
tematu setatu, hisiatu	Karen, idazkaria, besarkada eman nahi ziola tematu zen zuzendariarengana pasatzen utzi baino lehen.	166
txolindua txotxolotuta, lelotuta	Roland guztiz txolindua zegoen Andirekin.	137
txor-txor etengabeko hizketan	Bazuten aukera igerian ibiltzeko, besaulkietan etzateko, txor-txor jarduteko, bapo jateko...	127
ubeldura ubelunea, beltzunea	...imajinatzen badut niri buruzko pentsamendu itsusiren bat izan duzula, ubeldura batzuk baino gehiago eramango duzu etxera.	69
urradura tarratada	...Francis zuloren bat pasaratzen edo urraduraren bat adabatzen ari zen bitartean...	178
uxatu aienatu, urrunarazi	Eta zalantzak uxatzeko -edo, neskak beso bat jaso eta kezkoak balira bezala zeharkatu zituen jarlekuko oholtxoak.	9
xaxatu zirikatu	...aldamenean adiskide bat izateak xaxatzen zutenean ezker eskuin jotzeko zuen grina bezatzen lagunduko zion.	65
xerka bila	Horrela, Andi janari-dendaren xerka zihoan bitartean...	78
zendu hil	Zendutako lagun baten hilarria bisitatu nahi duzula esan diot.	78
zuhur burutsua, zentzuduna	Parsons andrea apur bat zuhurragoa zen, baina, irribarretsu, tea eskaini zion esertzeko eskatu ondoren.	167